



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN
UDALA
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA
DE
ARRANKUDIAGA
(BIZKAIA)

**2020KO EKAINAREN 15AN, ARRANKUDIAGAKO ELIZATEKO UDALAK EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

**BERTARATUTAKO
ZINEGOTZIAK**

=====

ALKATEA

Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero jauna. (EH Bildu)

ALKATE ORDEAK

Lehenengo alkate ordea, Itziar Duoandikoetxea Gonzalez anderea.(EH Bildu)
Bigarren alkate ordea, Mainer Biritxinaga Malaina anderea. (EH Bildu)

ZINEGOTZIAK

Mikel Abrisketa Izquierdo jauna. (EH Bildu)
Josu Beaskoetxea Azkueta jauna. (EAJ/PNV)
Izaskun Barrenetxea Izagirre anderea.(EAJ/PNV)
Ane Miren Esparza Montalban anderea.(EAJ/PNV)

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Daniel Maeztu Perez jauna.

=====

2020ko ekainare 15ean, 8:00-ak izanik, hasiera ematen zaio ohiko osoko bilkurari.

**1. MAIATZAREN 12AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA
ONARTZEA, HORRELA BADAGOKIO.**

Aprobación si procede del acta de la sesión ordinaria celebrada el 12 de mayo de 2020.

Aho batez onartzen da maiatzaren 12an egindako osoko bilkuraren akta.

2. "BEHARK" ARKITEKTURA BULEGOAK IDATZITAKO OXINBURU ERAIKINA GIZARTE ETA KULTURA ERABILERARAKO BIRGAITZEKO EXEKUZIO OBRAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ESLEITU GABE UZTEA.

Declarar desierto el proceso de contratación de las obras de ejecución del proyecto realizado por el estudio de arquitectura "Behark", para la rehabilitación del edificio de Oxinburu para usos sociales y culturales.

Aipatutako egikaritze obren kontratazio mahaiaren akta eta proposamena hurrengoa da:

ESPEDIENTEA ESLEITU GABE UZTEKO PROPOSAMENA.
PROPUESTA DE DECLARAR DESIERTO EL EXPEDIENTE.

Idazkariak kontratazio-mahaia osatzen duten kideei hurrengo informazioa helarazten die: Proposamenak aurkezteko epea amaituta dagoela (2020ko ekainaren 26an) eta ez da proposamenik aurkeztu. Ondorioz, Kontratazio Mahaiak aho batez erabaki du:

Kontratazioaren arloan eskumena duen organoari honako hau proposatzea:

Lehenengoa.- Arrankudiagako Oxinburu eraikina gizarte- eta kultura-erabilerarako birgaitzeko exekuzio-proiektuan jasotako obrak prozedura ireki erraztuaren bidez kontratatzeko espedientea esleitu barik uztea. Lizitatzailerik aurkeztu ez delako eta prozedura irekiaren bidez izapidetutako espedientea zelako.

Bigarrena.- Aurreko atalean adierazitakoaren ebazpena udaleko idazkaritza zerbitzuak kontratatzailearen profilean txertatuko du, bai eta espedientearen deuseztapena ere dagokion kontratazio plataformetan.

Hirugarrena.- Ebazpen horren berri ematea arkitekto aholkulariari, aztertzeko ea bidezkoa den lizitazio-espediente berri bat hastea eta izapidetzea dagokion prozeduraren bitartez.

Beraz, kontratatzeko espediente esleitu barik uzteko proposamena bozkutzen da eta 4 aldeko boto ematen dira (EH Bildu udal taldeko guztiak) eta 3 abstentzio ematen dira (EAJ-PNV udal taldeko guztiak).

Ondorioz, Oxinburu eraikina gizarte- eta kultura-erabilerarako birgaitzeko exekuzio-proiektuan jasotako obrak prozedura ireki erraztuaren bidez kontratatzeko espedientea esleitu barik uztea erabakitzen da.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ-PNV), adierazten du, jakina dela euren jarrera aipatutako proiektuaren inguruan eta prozesu osoan zehar euren kontrako jarrera adierazi dutenez, momentu honetan abstenitzen direla.

3. ADMINISTRAZIOAREKIKO 79/2020 PROZEDURA AURRUNTA AUZI ERREKURTSOAN ARRANKUDIAGAKO UDALA PERTSONATZEA ETA UDALA DEFENDATZEKO ETA ORDEZKATZEKO ABOKATUA IZENDATZEA.

Personamiento del ayuntamiento de Arrankudiaga en el procedimiento contencioso administrativo ordinario 79/2020 y designación de letrado para defensa y representación en el mismo.

Gaiarekin lotuta, udal idazkariak egindako txostena aurkezten da:

Gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3 artikulua ezartzen duen aholkularitza juridikoko funtzioaren arabera egiten da txosten hau.

El presente informe se realiza en virtud de la función de asesoramiento jurídico que el artículo 3.3 del Real Decreto 128/2018, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de la Administración Local con habilitación de carácter nacional.

Ebazpen-proposamen-txostena, administrazioarekiko auzi-errekurtsuan pertsonatzeari eta errekurto horretan abokatua izendatzeari buruzkoa.

Informe-Propuesta de resolución en relación al personamiento en recurso contencioso-administrativo y designación de letrado en el mismo.

Sarrera-erregistroko zk.: 463 2020ko ekainaren 2an, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiaren ebazpenaren jakinarazpena jaso da udal honetan. Ebazpen horren bidez, Gaizka Echabe Gomez jaunak eta Igone San Jose Olaguenaga andereak, 2019ko abenduaren 9an egindako bilkuran, errekurtsogileek aurkeztutako alegazioak ezetsi ondoren, behin betiko bide publikoen inbentarioa onartzearen hartutako erabakiaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtoa, 79/2020 prozedura arrunta, izapidetzea onartzen da. Epaitegiaren ebazpen horretan, 20 eguneko epean dagokion administrazio-espeditatea igortzeko eskatzen zaio udalari.

Con registro de entrada nº 463 y fecha 2 de junio de 2020 se ha recibido en este Ayuntamiento notificación de la resolución del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 2 de Bilbao por el que se acuerda la admisión a trámite del recurso contencioso administrativo, Procedimiento Ordinario 79/2020, interpuesto por D. Gaizka Echabe Gomez y D^a Igone San Jose Olaguenaga, contra el acuerdo del Pleno de este Ayuntamiento adoptado en sesión celebrada el 9 de diciembre de 2019, por el que tras la desestimación de las alegaciones presentadas por los ahora recurrentes, se aprueba definitivamente el inventario de caminos públicos del municipio. En la citada resolución del juzgado, se insta al ayuntamiento a remitir en el plazo de 20 días el expediente administrativo en cuestión.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua 1 k) zenbakian ezartzen duenez, alkateari dagokio ekintza judizialak eta administratiboak gauzatzea eta udala defendatzea bere eskumeneko gaitan, baita beste organo bati eskuordetu dizkionean ere, eta, presazko kasuetan, Osoko Bilkuraren eskumeneko gaitan; kasu horretan, alkateari jakinaraziko zaio berresteko egiten duen lehenengo bilkuran.

Bestalde, lege horren 22. artikulua 2. zenbakiko j) letrak ezartzen du osoko bilkurari dagokiola akzio judizialak eta administratiboak gauzatzea eta korporazioa defendatzea osoko bilkuraren eskumeneko gaitan.

Ondorioz, errekurtsoa Udaltzaren erabaki baten aurka jartzen denez, hau da, bideen inbentarioaren aurka, eta Udaltzaren osoko bilkurak ere onartu behar duenez, beharrezkotzat jotzen da Udaltzak prozedura horretan pertsonatzeko erabakia hartzea, errekurritutako erabakia defendatzeko, eta prozedura horretan bera ordezkatu eta defendatuko duen abokatua izendatzea. Era berean, jakinarazten da udal-idazkaritzak espedientea igorri diola Bilboko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiari.

Letradua izendatzeari dagokionez, kontuan hartuta udalak Jon Solatxi letraduarekin aholkularitza juridikorako kontratu-harremana duela, uste da defentsa juridikoaren aldetik eta ekonomikoki ere, egokiena aipatutako letradua izendatzea dela, aipatutako administrazioarekiko auzien prozeduran udala defendatzeko eta ordezkatzeko.

El artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, establece en su número 1 k) que corresponde al Alcalde el ejercicio de las acciones judiciales y administrativas y la defensa del Ayuntamiento en las materias de su competencia, incluso cuando las hubiere delegado en otro órgano, y, en caso de urgencia, en materias de la competencia del Pleno, en este supuesto dando cuenta al mismo en la primera sesión que celebre para su ratificación.

Por su parte, el artículo 22 de la citada Ley establece en su número 2, letra j) que corresponde al Pleno el ejercicio de acciones judiciales y administrativas y la defensa de la Corporación en materias de competencia plenaria.

En consecuencia, dado que el recurso en cuestión se interpone contra un acuerdo plenario, sobre una cuestión, que es el inventario de caminos, cuya aprobación también corresponde al pleno de la corporación, se considera necesario que el Pleno Municipal adopte acuerdo en el sentido de personarse en el citado procedimiento en defensa del acuerdo recurrido, designando Letrado que le represente y defienda en el citado procedimiento. Asimismo, se hace constar que por la secretaría municipal se ha procedido a la remisión del expediente al juzgado de lo contencioso administrativo nº 2 de Bilbao.

En lo referente a la designación de letrado, teniendo en cuenta que el ayuntamiento mantiene una relación contractual para el asesoramiento jurídico con el letrado Jon Solatxi, se considera que lo más adecuado desde el punto de vista de una correcta defensa jurídica y también económico, es la designación del mencionado letrado para la defensa y representación del ayuntamiento en el mencionado procedimiento contencioso-administrativo.

Horregatik guztiagatik, Udalbatzari honako ERABAKIA hartzea proposatzen zaio:

Por lo expuesto, se propone al Pleno la adopción del siguiente ACUERDO:

LEHENA.- Gaizka Echabe Gomez jaunak eta Igone San Jose Olaguenaga andreak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioan (79/2020 prozedura arrunta) Arrankudiagako Udala pertsonatzea, udal honetako osoko bilkurak 2019ko abenduaren 9an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, errekurtsogileek aurkeztutako alegazioak ezetsi ziren eta udalerriko bide publikoen inbentarioa behin betiko onartu zen.

PRIMERO.- Personarse el Ayuntamiento de Arrankudiaga en el recurso contencioso administrativo, Procedimiento Ordinario 79/2020, interpuesto por D. Gaizka Echabe Gomez y D^a Igone San Jose Olaguenaga, contra el acuerdo del Pleno de este Ayuntamiento adoptado en sesión celebrada el 9 de diciembre de 2019, por la que tras la desestimación de las alegaciones presentadas por los ahora recurrentes, se aprueba definitivamente el inventario de caminos públicos del municipio.

BIGARRENA.- Jon Iñaki Solatxi Martin letradua izendatzea, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegian izapidetzen ari den 79/2020 prozedura arruntean udal hau defendatzeko eta ordezkatzeko. Ahalordetzea indarrean dauden auzietarako ahalorde orokorraren eskrituretan jasota dago. Eskritura hori 2019ko maiatzaren 22an sinatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko notarioen elkargoko Maria Gomeza Villa notarioaren aurrean.

SEGUNDO.- Designar al letrado D Jon Iñaki Solatxi Martin, para la defensa y representación de este Ayuntamiento en el Procedimiento Ordinario 79/2020, en tramitación en el Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 2 de Bilbao. Cuyo apoderamiento consta en las escrituras del poder general para pleitos en vigor, firmado el 22 de mayo de 2019 ante el notario Maria Gomeza Villa del colegio de notarios del Pais Vasco.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen ziurtagiria bidaltzea Administrazioarekiko Auzien Bilboko 2. Epaitegira, dagozkion ondorioak izan ditzan.

TERCERO.- Remitir certificado del Presente acuerdo al Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 2 de Bilbao, a los efectos oportunos.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Jon Iñaki Solatxi Martin letraduari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

CUARTO.- Notificar el presente acuerdo al Letrado Don Jon Iñaki Solatxi Martin a los efectos oportunos.

BOSGARRENA.- Alkate-buruari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak sina ditzan.

QUINTO.- Facultar al Sr. Alcalde Presidente para la firma de cuantos documentos sean necesarios para la ejecución del presente acuerdo.

Era horretan, txostenean jasotzen diren proposamenak bozkutzen dira eta aho batez onartzen dira.

Ondorioz, Gaizka Echabe Gomez jaunak eta Igone San Jose Olaguenaga andreak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (79/2020 prozedura arrunta) Arrankudiagako Udala pertsonatzea onartzen da eta era berean, Jon Iñaki Solatxi Martin letradua izendatzen da aipatutako prozeduran, udalaren interesak defenda ditzan.

Azkenik, Iratxe Pérez Sarachaga prokuradorea izendatzen da ordezkartzarako, indarrean dauden auzietarako ahalorde orokorraren eskrituretan bere ahalordetza jasota dagoelako.

4. BISCAYTIK PROIEKTUAREN ESPARRUAN ZERBITZU ZEHATZAK JASOTZEKO HITZARMEN MARKOA ONARTZEA.

Aprobación del acuerdo marco para la adopción de determinados servicios en el ámbito del proyecto Biscaytik.

Udal idazkariak azaltzen du, BiscayTIK Fundazioa foru-fundazio publiko bat dela, Bizkaiko Foru Aldundiak sortutakoa, eta haren fundazio-helburuen artean jarduerak sustatzea dago, komunikazioaren teknologien bidez herritarrei arreta emateari lotutako teknologiak eta kudeaketa-praktikak bultzatu eta ezagutarazteko, herritarrak Administrazioengana online hurbil daitezen sustatze aldera. Horretarako, hainbat udalekin hitzarmenak sinatzen ditu, udalei aplikazio informatiko ezberdinak eskainiz. Arrankudiagren kasuan, hauek dira hitzarmenen bitartez eskaintzen diren zerbitzuak:

Egoitza Elektronikoko Plataformaren hitzarmena

Web-atariaren hitzarmena

Herritarren Izapide Plataformaren hitzarmena

Erregistroari buruzko hitzarmena

Espedienteen hitzarmena

Biztanle Erroldaren hitzarmena

Giza Baliabide eta Nominen hitzarmena

Kontabilitatearen Hitzarmena

Zerga Kudeaketa eta Bilketaren hitzarmena

Faktura Elektronikoaren Sarrera-puntu Orokorraren hitzarmena

Lizitazio Elektronikoaren hitzarmena

Elkarreragingarritasunaren hitzarmena

Gizarte Zerbitzuen hitzarmena

Open datako plataformaren hitzarmena

Sinadura-euskarriaren hitzarmena

E-learning Plataformaren hitzarmena

Aipatutako hitzarmen guztiak banan banan sinatu behar ez izateko, hitzarmen markoa sinatzea proposatzen da.

Aipatutako erabakia aho batez onartzen da eta era horretan Arrankudiagako udalak biscaytik proiektuaren esparruan zerbitzu zehatzak jasotzeko hitzarmen markoa sinatzea onartzen du.

5. 2021 URTEKO LAN EGUTEGIAN ARRANKUDIAGA ETA ZOLLOKO UDALERRIAREN TOKIKO JAIA AUKERATZEA.

Designacion de la festividad local del municipio de Arrankudiaga y Zollo, para el calendario laboral del año 2021.

Alkate jaunak (EH bildu) azaltzen du, ohitura dela urte batean San Pedro eguna izendatzea tokiko jai egun bezala, Arrankudiagako jai eguna delako eta hurrengo urtean, San Martin eguna izendatzea, Zolloko jai eguna delako. Kontuan izanik 2020an San Pedro izan dela, 2021 urterako proposamena, azaroaren 11an, San Martin eguna, tokiko jai egun bezala izendatzea proposatzen dela.

Era horretan, udal batzak aho batez onartzen du, 2021 urterako tokiko jai egun bezala, azaroaren 11 izendatzea (San Martin).

6. EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO LEGEBILTZARRERAKO UZTAILAREN 12AN EGINGO DIREN HAUTESKUNDETAN MAHAIK OSATZEKO ZOZKETA.

Sorteo para la composición de las mesas en las elecciones del 12 de julio de 2020 al parlamento de la Comunidad Autónoma Vasca.

Zozketa egiteko erabiltzen den informatika programa erabiltzen da eta honako hau da zozketaren emaitza:

*** SORTEO DE MIEMBROS DE MESA ***

MUNICIPIO: ARRANKUDIAGA

DISTRITO: 01 SECCION: 001 MESA: U

NOMBRE DEL LOCAL ELECTORAL: ESCUELA DE EDUCACION INFANTIL Y PRIMARIA

DIRECCION: BARRO ELEXALDE NUM: 22 ARENE

PRESIDENTE - Nº ORDEN LISTA:U0740 NIVEL DE ESTUDIOS: 4

Nombre: MARCOS VALLE URQUIJO

Identificador: XXXXXXXXXXXXX

PRESIDENTE SUPLENTE PRIMERO - Nº ORDEN LISTA:U0026 NIVEL DE ESTUDIOS: 4

Nombre: JON AGIRREGOIKOA LOPEZ

Identificador: XXXXXXXXXXXXX

PRESIDENTE SUPLENTE SEGUNDO - Nº ORDEN LISTA:U0659 NIVEL DE ESTUDIOS: 4

Nombre: BEATRIZ RUIZ ALONSO

Identificador: XXXXXXXXXXXXX

VOCAL PRIMERO - Nº ORDEN LISTA:U0660 NIVEL DE ESTUDIOS: 3

Nombre: ESTEBAN RUIZ TORREIRO

Identificador: XXXXXXXXXXXXX

VOCAL 1º SUPLENTE PRIMERO - Nº ORDEN LISTA:U0518 NIVEL DE ESTUDIOS: 4

Nombre: IKERNE BATIRTZE MENDIBIL ESPINOSA

Identificador: XXXXXXXXXXXXX

VOCAL 1º SUPLENTE SEGUNDO - Nº ORDEN LISTA:U0730 NIVEL DE ESTUDIOS: 4

Nombre: AINHOA UZQUIAGA OLAVARRIETA

Identificador: XXXXXXXXXXXXX

VOCAL SEGUNDO - Nº ORDEN LISTA:U0493 NIVEL DE ESTUDIOS: 4

Nombre: RAKEL MARTIN ANTON

Identificador: XXXXXXXXXXXXX

VOCAL 2º SUPLENTE PRIMERO - Nº ORDEN LISTA:U0102 NIVEL DE ESTUDIOS: 4

Nombre: AMAGOIA ASPURU FERNANDEZ

Identificador: XXXXXXXXXXXXX

Nombre: ION ANDONI REBOLLO RODRIGUEZ

Identificador: XXXXXXXXXX

7. EAJ-PNV UDAL TALDEAK SARTUTAKO MOZIOA.

Moción registrada por el grupo municipal EAJ-PNV.

EAJ-PNV udal taldeak honako mozio hau aurkezten du, herriko batzokian eta beste hainbat herrietan agertutako pintaden inguruan:

AZKEN ALDIAN HAINBAT ALDERDI POLITIKOETAKO EGOITZEN ETA KIDEREN KONTRA EGINDAKO ERASOEN AURREAN ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Ordezkarri politiko eta hautetsien etxebizitza pribatuetan eta alderdi politikoaren egoitzetan azken egunotan jasan diren mehatxu eta erasoaren aurrean, Arrankudiaga-Zolloko EAJ-PNVko udal taldeko kideok ondorengo adierazi nahi dugu:

Lehenik eta behin, gure gaitzespenik sendoena eta erabateko arbuioa adierazi nahi dugu norberaren intimitatearen, askatasun kolektiboaren, demokrazia parte hartzailearen eta herriak aukeratutako ordezkari politikoaren kontra egin diren erasoaren aurrean. Arrankudiaga-Zolloko herritarrok adibiderik gertukoena pasaden maiatzaren 26ko gaualdean Arrankudiagako Batzokiak jasandako erasoak dugu. Ondorioz, argi utzi nahi dugu, horrelako jarrera eta erasoek ez dutela tokirik ez Arrankudiaga-Zollon ez beste inon.

Bigarrenik, gure elkartasuna adierazten diegu mehatxuak jaso dituzten pertsona eta alderdi politikoei, beren etxeetan eta egoitzetan indarkeriazko erasoak jaso dituztenei.

Eta azkenik, elkarrizketarekin daukagun konpromisoa berresten dugu, tresnarik eraginkorra delako, bai eta ezberdinarekin errespetuarekin, elkarbizitzarekin eta Bakearekin eta Askatasunarekin hitzeman dugun konpromisoa ere, gure balorerik gorenenak direlako.

MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV DE ARRANKUDIAGA-ZOLLO ANTE LOS RECIENTES ATAQUES A SEDES Y MIEMBROS DE DIFERENTES PARTIDOS POLÍTICOS

Ante las amenazas y ataques que estos días se han sufrido tanto en el domicilio privado de representantes políticos electos, como en las propias sedes de partidos políticos, los miembros del grupo municipal del EAJ-PNV de Arrankudiaga-Zollo queremos manifestar:

En primer lugar, nuestra más absoluta condena y enérgico rechazo a estas agresiones, a la intimidación personal, a la libertad colectiva, a la democracia participativa y a los/as representantes políticos de la voluntad popular. El ejemplo más cercano para los vecinos y vecinas de Arrankudiaga-Zollo es el ataque sufrido por el Batzoki de Arrankudiaga en la noche del pasado 26 de mayo. En consecuencia, queremos dejar claro que este tipo de actitudes y agresiones no tienen cabida ni en Arrankudiaga-Zollo ni en ningún otro lugar.

En segundo lugar, nuestra solidaridad con las personas y los partidos políticos que se han visto amenazados y cuyas sedes y domicilio han sufrido ataques violentos.

Y por último, reafirmamos nuestro compromiso con el diálogo como instrumento más eficaz, con el respeto al diferente, con la convivencia y con la Paz y la Libertad como valores supremos.

Era berean, EH bildu udal taldeak, gai berdinaren inguruan beste mozio hau aurkezten du:

Arrankudiagako batzokian agertutako pintadak direla eta Arrankudiaga eta Zolloko EH bilduren udal taldeak ondoko adierazpena proposatzen dautso udalbatzaren osoko bilkurari:

Maiatzaren 26an Arrankudiagako batzokian agertutako pintadak direla eta Arrankudiaga eta Zolloko Udalak:

- Ekintza horrekiko erabateko desadostasuna adierazten dau eta holango gertakariak guztiz lekuz kanpokotzat jotzen dauz.
- Aldi berean, politika penitentziarioak presoen osasun eta eskubideetan daukazen ondorio latzak gororatzen eta salatzen ditu. COVID-19 pandemiaren larrialdi garaian areagotu egin diren ondorioak, hain zuzen ere.
- Batak zein besteek, politika penitentziarioak zein pintadek, bizikidetzeta eta normalizazio politikoaren aurka doazela eta geure herriko elkarbizitzan ere eragin ezkorra daukiela adierazten dau.
- Herritarren eskubideen aurkako urraketa guztiak desagertzeko lanari etengabe ekiteko konpromisoa azaltzen dau. Eta, bide honetan, herritar guztiekaz elkarlanean pausoak egiteko borondatea berresten dau.

Behin mozioak aurkeztuta eztabaidara pasatzen da. Alkate jaunak (EH Bildu), esaten du, EAJk aurkeztutako mozioa Arrankudiagatik kanpoko gertakariak aipatzen dituela eta euren nahiago dutela soilik Arrankudiagan gertatutakoaren inguruan berba egitea.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ-PNV), erantzuten dio esanez, EH Bilduren mozioan ere presoen egoera aipatzen dela eta hori ez dela Arrankudiagan gertatutakoaren inguruan soilik jardutea. Beraz, euren ere, beste leku batzuetan gertatutakoak jasotzen dutela. Era berean, galdetzen dio idazkariari zelan egin behar den bozketa.

Idazkari jaunak erantzuten dio, lehenengo jatorrizko mozioa (EAJ) bozkatuko dela eta gero EH Bilduk aurkeztutakoa. Baina soilik aldeko bozkek zenbatuko direla, bestela testu bien artean berdinketa egon daitekeela edo biak aldeko bozka gehiago atera kontrakoak baino, eta ondorioz, gai berberaren inguruan, eduki ezberdina duten mozio bi onartutzat hartzea ez zela logikoa izango.

Bozkeketa egiten da:

EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioak, aldeko 3 boto (EAJ-PNV udal taldearen kide guztiena).

EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioak, alde 4 boto lortzen ditu (EH Bildu udal taldeko kide guztiena).

Beraz, EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa onartzen da.

8. SINATUTAKO ALKATE DEKRETUEN KONTU EMATEA.

Dación de cuentas de decretos de alcaldía firmados.

Hurrengo alkate dekretuen kontu ematen da:

56-2020 Solicitud de licencia municipal de obra para desvío de tubería de saneamiento en Atxeta.

57-2020 Solicitud de licencia municipal de obra para reforma de oficinas en el pabellón 35 del polígono industrial Bakiola.

58-2020 Solicitud de licencia municipal de obra para acondicionar la entrada a la vivienda en Elexalde.

59-2020 Solicitud de licencia municipal de obra para cambio de alumbrado e instalación de sistema de video vigilancia en el polígono industrial Bakiola.

60-2020 Contrato menor de servicios para dirección de la ejecución de la obra de rehabilitación del edificio de Oxinburu.

61-2020 Solicitud de licencia municipal de obra para reforma interior de vivienda unifamiliar en Ustara.

62-2020 Proceso de contratación de las obras de acondicionamiento de una toma de agua (boca de riego) en el barrio de Zuloaga.

63-2020 Abono de justiprecio y formalización acta de ocupación, del proceso de expropiación de terrenos en Iberlanda.

64-2020 Apertura del proceso de selección de una bolsa de trabajo de monitores y monitoras de colonias y guardería en el municipio de Arrankudiaga y Zollo.

65-2020 Pago fraccionado de la liquidación del Impuesto y Tasa por construcciones, instalaciones y obras.

66-2020 Solicitud de licencia municipal de obra para instalación de piscina en Zollo-Elexalde.

67-2020 Solicitud de licencia municipal de obra para construcción de piscina en Zabalzar.

Ane Miren Esparza andereak (EAJ-PNV) galdetzen du 65-2020 dekretuaren inguruan. Zehazki nor dan eskatzailea eta etxebizitza horren obrak aurrera eramane behar diren. Alkate jaunak (EH Bildu) erantzuten dio, obra baimena orain dela gutxi eman zaiola eta 6 hilabeteko epea duela obrak hasteko. Orain, Koronabirusa dela eta zerga eta, tasaren ordainketa epeka egiteko eskaera egin dutela eta onartu zaiela.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ-PNV) galdetzen du 60-2020 dekretuaren inguruan. Zehazki ze irizpideen arabera egin dan kontratazioa.

Alkate jaunak (EH Bildu) erantzuten dio kasu honetan, kontratatu den pertsona, proiektua egin zuten arkitektoekin batera lanean egon dela Oxinburuko proiektuan. Beraz, obren zuzendaritza teknikoa eramateko orduan, proiektuaren inguruan daukan ezagutza baloratu dela.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ-PNV) galdetzen du 59-2020 dekretuaren inguruan. Jakin gura du zelan aplikatu diren hobariak Bakiolako obran.

Idazkari jaunak erantzuten dio, soilik argiteriarekin zerikusia duten obren aurrekontuei aplikatu zaiela. Ez obra guztiaren aurrekontuari.

9. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ruegos y Preguntas.

Josu Beaskoetxea jaunak (EAJ-PNV) galdetzen du, herriko jaiak ospatzeko asmorik ote dagoen edo zer edo zer egiteko asmorik.

Maiden Biritxinaga andereak (EH Bildu), erantzuten dio jaiak ospatzeko asmorik ez dagoela. Ondiño ez dela bertan bera uzteko erabakirik hartu baina eragileekin batzartu ondoren bertan bera uzteko asmoa dagoela. Beraz, jai batzordeko kideekin eta hainbat eragileekin batzar bat egin behar dela esaten du eta zehazten joan ze nolako ekitaldiak antolatu ahal diren beti ere koronabirusak erakarri duen egoera aztertuta eta araudi berezia kontuan harturik.

Eta jorratzeko gai gehiagorik ez denez egon, Udalburuak amaiera eman dio bilkurari, 2020ko ekainaren 15ean, 09:30etan amaitu da. Akta hau alkateak sinatzen du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut:

Y sin más asuntos que tratar, la presidencia da por finalizado el acto, siendo las 09:30 horas del 15 de junio de 2020. La presente acta es firmada por el alcalde y por mí, el secretario que doy fe de ello.

ALKATEA

IDAZKARIA